

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

401/2025 Erabakia, uztailaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Teresa García Miravalles Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren konfiantzako idazkari kargurako izendatzeari, lanpostuaren titularra ez dagoelako

Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketari eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauak 8 eta 24 artikuluetan eta Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren laugarren xedapen gehigarrian jasorikoarekin bat etorriz, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio, diputatu nagusiaren edo dagokion foru diputatuaren proposamena entzun ondoren, foru aldundiko lanpostu zerrendan jasota dauden konfiantzako funtzioekin behin-behineko lanpostuak beteko dituzten pertsonak izendatzea.

Horregatik, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak proposatuta, martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 8 eta 24 artikuluek aitortzen dizkidan ahalmenak baliatuz, eta Foru Gobernu Kontseiluan gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honakoa

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Teresa García Miravalles izendatzea, behin-behineko langileek betetzekoa den Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren idazkari lanposturako (kodea: 1300.008), lanpostuaren titularra ez dagoelako.

Bigarrena. Erabaki honek ondorioak izango ditu 2025eko uztailaren 2tik aurrera.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 1a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua

ANA DEL VAL SANCHO